

Luzatu egin da 2024-25 ikasturterako eskola materiala erosteko diru-laguntza eskaeraren epea

- **Irailaren 6an amaituko da epea; eskaerak Atarian aurkeztu beharko dira.**

Andoainen, 24-08-27.- Andoaingo Udalak, Gizarte Zerbitzuetako sailaren bitartez, 2024-2025 ikasturterako eskola materiala erosi ahal izateko diru-laguntza lerroa zabaldu du; eskerak egiteko epea luzatu egin da, gainera: irailaren 6ra arte egongo da horretarako aukera.

Guztira 9.850 euro bideratu ditu Udalak diru-laguntza lerro honetara, eta helburua da, familia kaltebeherenei laguntzea euren haur eta gazteen eskolako materiala erosteko, hurrek baldintza egokienak izan ditzaten euren ikasketa prozesuan.

Oro har, honako material hauek hartuko dira eskola materialtzat:

- Isazmahaiko materiala: lapitzak, boligrafoak, folioak, koadernoak...
- Material ez suntsikorra: karpetak, artxibagailuak, estutxeak, kalkulagailuak, testu liburuak...
- Teknologietako, Musika eta Heziketa Plastikoetako elementuak.
- Haur Hezkuntzako ikasleak: mantala, motxila txiki bat eta eskolako gastuak.
- Orokorrean, ikastetxeak zirkular bidez espezifikoki eskatutako edozein material.

Hainbat baldintza bete beharko dira diru-laguntza eskuratzeko, besteen artean:

- Aipatu eskola materiala herriko komertzioetan erosi beharko da.
- Derrigorrezkoa izango da haurra herriko ikastetxeren batean matrikulatuta egotea.
- Familiaren urteko errentak ez du gaindituko 1 tartean 15.420 euro gordinak, eta 2 tartean 15.420tik 20.000 euro gordinak.

Aurkeztu beharreko agiri-sorta, zein xehetasun guztiak, eskolako materiala erosteko diru laguntzak arautzen dituen oinarri orokorretan jasotakoak dira. Oinarriak Udalaren www.andoain.eus web orrian eskuratu daitezke. Eskaera Ataria - Herritarren Arreta Zerbitzua (Udalatxearen beheko solairuan) aurkeztu beharko da (telf.: 943.300.830) edo aurkezpen telematiko bitartez andoain.eus-en.